

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

OZETAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Etxebizitza errentan emateko enkantea

Etxebizitza bat errentan emateko enkante publikoa iragartzen da. Ozetako kontzejuarena da, eta 75 metro koadroko eremu erabilgarria du. Enkantearen baldintzak Barrundiako udal bulegoetan (Ozeta) daude, interesdunek kontsultatzeko (650402519 telefonoan ematen dira argibideak).

Lizitazio oinarria:

- 350 euro (hirurehun eta berrogeita hamar euro) hilean, edo hortik gora.

Esleipen prozedura: enkantea.

Bermeak: behin betiko bermea esleipen zenbatekoaren bi hilabeteko errenta izango da.

Urtebeterako emango da errentan etxebizitza; hiru urte arte luza daiteke, eta beste urtebetez ere bai, isilbidez.

Eskaerak aurkeztea: Barrundiako Udala. Boilar kalea 12, 01206 - Ozeta.

Eskaerak aurkezteko epea eta eskaintzak irekitzea: 15 egun natural, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Eskaintzak irekitzea epea bukatu eta hurrengo lehen igandeko 12:00etan egingo da, Ozetako Kontzejuaren aretoan.

Eskaintza eredua

..... jaunak/andreak,bizi denak,..... NAN zenbakidunak, bere izenean edo ordezkatzuz, zk.ko ALHAOn iragarritako enkantearako egiaztatzen duen bezala, Ozetako Kontzejuaren Uria kaleko beheko etxebizitza errentan hartzeko enkantean parte hartzen du, eta zenbateko hau eskaintzen du (zenbakiz eta letraz)..... euro hilean.

Hori guztia baldintza ekonomiko eta administratiboen agiriaren arabera, zeina osorik onartzen baitu. Adierazten du ez dagoela administrazio publikoarekin kontratatzeke ezintasun edo bateraezintasun egoeretan.

Honi erantsita aurkezten dira baldintzen agiriaren zortzigarren idatz zatian eskatutako dokumentuak.

....., 2016koarena.

Izenpea:

Ozeta, 2016ko irailaren 19a

Lehendakaria

JAVIER UGARTE BARRENA